

UPV/EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2023)
I eta II MODALITATEAK

Onartu eta ukatutako eskaeren behin-betiko ebazpena

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2024ko ekainaren 5ean, UPV/EHUN ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia 2024 (I. eta II. Modalitateak).

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2025eko martxoaren 13an, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen kontratua onartu edo bertan behera uzteko eta alegazioak aurkezteko.

Epe hau iraganik, IGBBk apirilaren 19ko bileran aurkeztutako alegazioak aztertu ditu eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helarazi dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian argitaratzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean (I. eta II. modalitateak) jasota dagoena eta lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

Bigarrena.- Onartzea aurkeztutako alegazioei buruz IGBBk egindako proposamena (II. eranskinean jasotzen direnak).

Hirugarrena.- 2025eko martxoaren 26tik 2025eko apirilaren 9ra bitarteko epea irekitzea, hautatutako pertsonak Ikerketaren arloko Errektoreordetzan aurkez ditzaten deialdiko 8. oinarrian eskatutako agiriak, betiere III. eranskinean jasotako jarraibideen arabera.

Epe horrek berak eragiten die behin-behineko ebazpenari uko egin ondoren argitalpen honetan emandako eskaerei.

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, ulertuko da laguntzari uko egiten zaiola.
Inkorporazioak 2025eko apirilaren 1etik aurrera egingo dira.

Epe hori bera aplikatuko zaie behin-behineko ebazpenari uko egin ondoren argitalpen honetan emandako eskaerei.

Laugarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

Bosgarrena.- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilita:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.. Administrazio

errekurtso hori jarritz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da. Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera. (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2025eko martxoaren 26an.

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA